

BAKIOKO UDALA OSOTZEKO BILKURAREN AKTA

Hauteskunde-araubide Orokorren bagilaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195. artikuluan ezarritakoa betez eta udala osotzeko bilkura egiteko asmoz, 2019ko bagilaren 15ean, goizeko 12:15ean, udalbatza aretoan batu egin dira hauteskundeetan aukeratutako ondoko zinegotzi honeek: *Amets Jauregizar Baraiazarra (EH Bildu)*, *María Isabel Barturen Lasa (EH Bildu)*, *Egoitz Abio Arrillaga (EH Bildu)*, *Irati Abio Muruaga (EH Bildu)*, *Miren Garbiñe Olealdekoa Orbe (EH Bildu)*, *María Begoña Abio Zapirain (EAJ-PNV)*, *José Luis María Urrutia Bilbao (EAJ-PNV)*, *Guillermo Martín Martín (EAJ-PNV)*, *Gorka Uriarte Urazurrutia (EAJ-PNV)*, *Javier Miguel Alvarado (BAKIOBAI)* eta *Josu Garai Vara (BAKIOBAI)*.

Hasteko, José Luis María Urrutia Bilbaok eta Gorka Uriarte Urazurrutiak, hau da, aukeratutako zinegotzi nagusienak eta gazteenak, hurrenez hurren, osatutako Mahaia eratu da. Horrela, José Luis María Urrutia Bilbao edadez nagusiena dan ezkerro, Mahaiko burua izan da, eta idazkaria Juan Francisco Eiguren Kortazar, hau da, korporazinoako idazkari berbera.

Mahaiak aurkeztu diran zinegotzi-kredentzialak aztertu eta aukeratutako zinegotzi guztiak batzar honetara bertaratu dirala egiaztatu dau. Era berean, Mahaiak ziurtatu dau be zinegotzi guztiak bateraezintasun, jarduera zein ondare ondasunen ganeko aitorten agiriak aurkeztu dabezala, beti be korporazinoako kideen interes erregistroetan inskribatzeko.

Jarraian, apirilaren 5eko 707/79 dekretua eta Hauteskunde-araubide Orokorren bagilaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa beteteko, zinegotzi guztiak, banan-banan, herri subiranoaren aurrean zinegotzi karguaren betebeharrak zintzoki eta leialtasunez beteko dabezala zin egin dabe; ondorioz, zinegotzi guztiak karguaz jabetu dira. Horrela bada, Mahaiak korporazinoan legez osotu dala adierazo dau.

Horren ostean, alkatea aukeratzeko prozedurari ekin jako; horretarako, bagilaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196. artikuluan ezarritakoaren arabera, alkatetzarako hautagaiak alderdiko zerrendaburuak izan daitezkeela aitatu dau udal idazkariak. Hiru alderdietako zerrendaburuak ia Alkaterako hautagai izaten jarraitu gura daben galdetu jaken ezkerro, baiezkoa honeek emon dabe:

Amets Jauregizar Baraiazarra.....EH BILDU
María Begoña Abio Zapirain.....EAJ/PNV

Halanda ze, bilkurara bertaratutako zinegotziek botoa emoteari ekin deutsoe ezkutuko botoaren bidez; beraz, emondako botoen zenbaketa egin eta gero, ondoko emoitza izan da:

Botoak

Amets Jauregizar Baraiazarra.....7
María Begoña Abio Zapirain.....4

Emondako botoak guztira.....11
Zuriz.....bapez
Ezeztatutako botoak.....bapez

Hortaz, alkate izendatua izan da **AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA** andrea, eta bilkuran dagoen lez, herri subiranoaren aurrean alkate karguaren betebeharrak zintzoki eta leialtasunez beteko dauzala zin egin dauan ezkerero, alkate karguaz jaubetu da.

Horrenbestez, udal korporazinoa eratu eta alkatea izendatu dan ezkerero, bilerak izan dauan helburua amaitutzat emon da 12:40ean, eta hau guztia kontuan hartuz egin da akta hau eta nik, idazkari jaunak, horrela egiaztatzen dot.

Alkatea

Idazkaria

Horren ostean, Amets Jauregizar alkate andreak, EH BILDUKo zinegotzien izenean, berbea hartu eta ondorengo hau adierazo dau:

Legegintzaldi honeri hasiera emoteko hausnarketa, konpromiso eta berba batzuk konpartidu nahiko nekez zuekaz:

Lehenengo eskerrak emon gure dotzetaz Sanperi lau urte hauetan egindako lanagatik. Badekot zuretzako mezu bat ere, orain lasai biziko zarela uste dozu....baie badakizu, gugaz jai dekozula.

Eta urrunera ere begiratu nahi dut. Gaur hemen egon ezin direnak gogoratzeko, bidean utzi ditugunak, kartzelan urrun daudenak edo arrazoi desberdinengatik gaur gure ondoan ez daudenak.

Pertsonala, politikoa dela esaten da askotan, eta egia esan, horrela dala uste dot nik ere. Politikak badauka asko pertsonaletik eta pertsonalak, garenak, asko du politikatik. Alkatetza hartu gendunetik lau urte pasa dira, eta ez dotzuet ukatuko, lau urte hauek intentsoak bezain gogorak izan direla. Zaila da politikan emakumea izatea, eta zaila emakume gaztea izatea ere. Beraz, nire lehenengo mezua, zuentzako da, guztiontzako, lan egin dezagun gure buruan dugun gizon zuri politiko hori burutik ateratzeko eta emakumeak gizarteko edozein rol betetzeko kapaz garelako gure ondorengoei erakusteko.

Kanpaina ere gogorra izan dala ez dotzuet ukatuko, guretzako erronka izugarria izan da. Helburu argi bat izan dugu, herriak gure proiektua eta lau urtetan egindako lana babestea. Eta lortu dugu, lehenengo indarra izan gara botoen %48arekin. Eraitza honek, arnasa hartu eta aurrera jarraitzeko indar handia eman digu. Nire bigarren mezua, bozkatu digun guztientzako da. Argi dugu akordioa, umiltasuna, gardentasuna eta zintzotasunaren aldeko bozka eman duzuela. Eta aurrerantzean ere, balore hauek ardatz hartuta gobernatzeko konpromisoa hartzen dugu.

Pozik gaude, bai, ilusioz eta indarrez ekingo diogu aurrean dugun legegintzaldi barriari. Baina, ez gara gure emaitzekin konformatzen, guk akordioan oinarritzen den herri proiektu bat dugu helburu, eta horregaitik, hurrengo urteetan bidelagun berri bat izango dugu. BakioBai!rekin akordioa sinatu dugu, ekonomia arloan gobernu ardurak konpartitzeko. Guk, akordio hau balorean jarri nahi dugu, uste dugu desberdinen arteko akordioak, herri proiektua aberasten duela. Baina argi dugu ere, akordio hau hankamotza dela, zu gabe. Herri gabe.

Hirugarren mezua, herri guztiari zuzendu nahi diot. Gaur aginte makila dantzaz jarriko dugu, eskuz esku pasatuko dugu. Guk ez dugulako agintea era tradizionalen ulertzen. Guk ez dugu aginte makilik behar, ez dugu bertikalean sinesten, goitik beherako agintean sinesten. Guk borobilean egin nahi dugu lan. Herritik eta herriarentzako jardun nahi dugu. Horregaitik, legegintzaldi honetan ere, zuekin eztabaidatu, hausnartu eta zuekin batera egin nahi dugu. Ilusioa transmititu nahi dizuegu, etorkizuna irudikatzen jarraitzeko beharrezko ilusioa.

Jakin badakigulako, ametsetan jarraitu behar dugula, pertsonala politikoa delako eta guk, herritarrek hobeto biziko garen herri bat eraiki nahi dugulako. Gora Herria!

Ostean, Maria Begoña Abio Zapirain zinegotzi andreak, EAJ-PNV zinegotzien izenean, ondorengo hau adierazo dau:

Bakioko herriek bere ordezkariak aukeratu ditu eta gaur, aukeratutakoak, herriko etxean batu gara udalbatza eratzeko eta alkatea izendatzeko.

Beraz, gaurko ekitaldia Demokratikoa da, Demokrasiaren oinarria, eta horrez gain beste ezaugarri garrantzitsu bat ematen da gaur: Bakean egin dala, hainbeste desiratu eta itxaron dogun Bakean, eta hori poztekoa da herri heldua garala erakusten ematen daudelako.

Demokrazian, legezkoa da hauteskundeak irabazi dituenari zorionak emotea. Horrela ba, zoriondu nahi dogu Amets-eri berari tokatzen jakolako alkatetza hartzea.

Eta demokrazia honetan ez dago ohore handiagorik herriak aukeratutakoa izan eta erakundeetatik norberaren herriaren alde lan egin ahal izatearena baino.

Eta horixe da gaur hemen adierazi gura dodana: EAJ-ko zinegotziok, hurrengo lau urteetan, Bakioren eta bakiotarren zerbitzuan lan egiteko prest gagozala.

Gure aldetik ere, gobernu egonkor bat osatzearen aldeko alegiñe egin dogu baie beste partetik ez dalez aurrera pausurik emon, eta akordio batera heldu dira gu barik, hori dala ta Eusko Alderdi Jeltzaleko ordezkariok oposiziño eraikitzaile bat egiñiz, gaurtik aurrera, eta orain arte izan dogun modure, gure ahalegin guztiak ipiniko doguz bakiotarren bizikalitatea eta Bakio, hoberantz joan daitezen.

Leialtasunez eta zintzotasunez Bakiogaz eta bakiotarrakaz, baina baita gure programeagaz eta gure ikuspuntuekaz. Hori be demokrazia badalako: bakoitzak bere ikuspegitik herritarren alde egitea.

Beste barik eskerrik asko bakiotar guztioi.

Azkenik, Josu Garai Vara zinegotzi jaunak, BAKIOBAIko zinegotzien izenean, adierazpen hau egin dau:

BakioBai se compromete a eso, a esforzarse por encontrar puntos en común con asociaciones, trabajadoras, concejales y alcaldesa, con la escuela, el desarrollo urbanístico, las y los jóvenes y las y los mayores y con cada persona que busque una solución para un problema.

Además, y fruto del acuerdo de gobierno alcanzado, nos comprometemos a gestionar la parte económica del ayuntamiento con transparencia, honradez y atendiendo a cuantas dudas puedan surgir.

También tenemos que decir que la reunion y siguiente comunicación que tuvimos con EAJ-PNV fue muy positiva y entendemos que esa actitud es la que va a marcar en el curso de esta legislatura.

Bakion, 2019ko bagilaren 15ean

Udal Idazkaria
Juan Francisco Eiguren